

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mari Fé Liberal Vega

101L -
DSS2016,
Gipuzkoa
(1954)

Aurkibidea



Biografia



Cacereseko Aliseda herrian jaioa. Gurasoekin eta anai-arebekin etorri zen Bergarara bizitzera, Osintxu auzora, 15 urte zituenean. Cordobako gizon batekin ezkondu zen eta hiru alaba izan zituzten; hirurek ikasi zuten euskaraz. Mari Jose alaba ere elkarrizketatu genuen, Bergaran Bertakotzen proiekturako.

Zintak

101-263

- **Proiektua:** 101L - Bergaran Bertakotzen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2026-02-16
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Sapsootham, Itziar

Pasarteak

1. Extremaduratik Osintxura bizitza berri baten bila

- **Erref:** 101-263/002
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz

Laburpena:

Extremadurako Aliseda herrikoa da Mari Fé. Jauntxo batzuen baserrian lan egiten zuen familia osoak. Lan gogorra zen eta goserik pasa ez bazuten ere, aberastasunik ere ez zuten. Osintxura bizitzera joan ziren aukera hobea baten bila.

2. Osintxura etxearekin eta lanarekin heldu ziren

- **Erref:** 101-263/004
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:03:03. **Bukatu:** 00:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz

Laburpena:

1969ko abuztuan heldu ziren Euskal Herrira familia osoa. Osintxun osaba batzuk zituzten eta haien bidez etxea eta lanak aurkitu zituzten. Heldu eta guztiak hasi ziren lanean, bera ez ezik. Urtebetera hasi zen lanean Madina torloju-lantegian.

3. Euskal Herrira lanera

- **Erref:** 101-263/005
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:03:59. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz

Laburpena:

Osintxura bizitzera joan zirenean, etxean laguntzen zuen hasieran. Aldaketa ez zen gogorra izan, bazekitelako lanera zetozela Euskal Herrira. Inguruan familia bazuten ere, hizkuntza ez ulertzea izan zen zailtasun handiagoa.

4. Berak euskaraz ez; alabek, bai

- **Erref:** 101-263/006
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:09:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- 101L » Integrazioa » Euskara, integrazio hizkuntza

Laburpena:

Auzokoek ez zituzten kanpotarrak onartzen, gehienbat euskaraz ez zekitelako. Euskarazko hitz solteak ikasi zituen baina ez zeukan denborarik euskara ikasteko. Garai hartan oraindik euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen eta ez zeuden klaseak. Alabak izan zituenean, argi izan zuen haiek euskaraz ikasi eta biziko zirela, eta Osintxuko ikastolara eraman zituen.

5. Senarra Andaluziatik etorria

- **Erref:** 101-263/008
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:09:26. **Bukatu:** 00:12:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Senarra Andaluziatik etorri zen bera Osintxura heldu zen egun berdinean. Mari Ferekin Madinan lan egiten zuen neska baten bitartez ezagutu zuen Bergarako jaietan. 22 urte zituenean ezkondu zen. Senarra Euskal Herrira etorri zen bertan dagoeneko bi anai zituelako lanean eta bizitzen. Garitano garraioetan hasi zen lanean eta gero Manso Ardoen garraiolari bezala. Hasiera batean apopilo bezala bizi izan zen Bergaran eta ezkondu zirenean Osintxura bizitzera joan ziren.

6. Etxean torlojuak egiten zituen

- **Erref:** 101-263/009
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:12:22. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

25 urterekin lantegian lan egiteari utzi zion baina etxean lan egiten zuen torlojuekin. Geroago etxeak garbitzen hasi zen, gero zerbitzari bezala jarri zen eta azkenik Bergarako anbulatorioan garbitzaile bezala erretiratu zen.

7. Tentsio handiko momentuak

- **Erref:** 101-263/011
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskal gatazka
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Herriko jende batzuk euskaraz ikasi behar zutela esaten zieten. Bestalde, euskaldunei ere "habla en cristiano" eta horrelakoak esaten zieten. Urte gogorak izan ziren eta haiek ez zute ulertzen oso ondo zer gertatzen zen.

8. Maketoak

- **Erref:** 101-263/013
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:16:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ekonomia eta industria » Boom industrialia

Laburpena:

Askok ez zieten herrian nahi, kanpotarrak zirelako eta ez zutelako euskaraz egiten. Maketo deitzen zieten. Egoera hori pasatzen joan zen eta gero denak familiakoak bezala ziren.

9. Osintxutik Bergarara

- **Erref:** 101-263/014
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Osintxun oso giro ona zegoen eta pena handia eman zion Bergarara bizitzera joatea. Osintxura kanpoko jende asko joan zen lanera baina gero haietako asko Bergarara mugitu ziren.

10. Dei-efektua Osintxun

- **Erref:** 101-263/015
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:19:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz

Laburpena:

Osintxura bizitzera joan ziren osaba bat dagoeneko bertan zegoelako. Etxebizitzak merkeak ziren, dendak zeuden, tabernak, garraio publikoa...

11. Tomatea gordinik jatea arraroa zen; baratzea

- **Erref:** 101-263/017
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura

Laburpena:

Extremadurako gastronomia mantendu dute, baina Euskal Herrikoa ikasi ere bai. Kanpotarrek ekarri zuten tomatea edo pepinoa gornidik jateko ohitura. Extremaduran baratzea zuten eta Osintxura heldu bezain laster aitak eta osabak berria prestatu zuten..

12. Oso pozik bizi da Euskal Herrian

- **Erref:** 101-263/019
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:22:53. **Bukatu:** 00:24:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Kultur aniztasuna » Jatorrizko herrialdea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Senarraren gurasoak eta arrebak Andaluzian gelditu ziren eta urtero-urtero joaten dira. Dirua bidaltzen hasi ziren eta etxe bat eraiki zuten. Extremadurakoa da Mari Fe baina Euskal Herrian egin du bere bitzta eta oso pozik dago.

13. Alabek euskaraz biziko zirela argi zuen

- **Erref:** 101-263/020
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:24:19. **Bukatu:** 00:26:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Integrazioa » Integraziorako bideak eta arazoak
- 101L » Integrazioa » Euskara, integrazio hizkuntza

Laburpena:

Hasierako urteetan zailagoa egin zitzaion integratzea baina lagunak eta bikotea ezagutu zituenean, dena aldatu zen. Alabek hasieratik ikasi zuten euskaraz eta guztiz integratuta daude.

14. Industriak kanpoko jende asko erakarri zuen

- **Erref:** 101-263/022
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Boom industrialia
- 101L » Migrazioak » Zergatik aldatu bizitokiz

Laburpena:

Industriak lanpostu asko sortzen zituen eta kanpotik jende asko etorri zen Euskal Herrira bizitzera.

15. Euskarazko hitz gutxi dakizki

- **Erref:** 101-263/026
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:29:02. **Bukatu:** 00:29:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- 101L » Eleaniztasuna » Hitz batzuk euskaraz

Laburpena:

Bizpahiru hitz dakizki euskaraz: egun on, gabon, arratsalde on...

16. Argazkia: senarra eta bera nobio garaian

- **Erref:** 101-263/029
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:30:58. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Argazkia: senarrarekin nobio garaian, 18 bat urterekin. Bergaran ateratako argazkia da.

17. Argazkia: Madina lantegiko lankideekin

- **Erref:** 101-263/030
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:32:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Argazkia: Madina lantegiko lankideekin. 1972.

18. Argazkia: iloba baten urtebetetzea

- **Erref:** 101-263/032
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:32:18. **Bukatu:** 00:32:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Argazkia: iloba baten urtebetetzea, Osintxun

19. Argazkia: Bergaran elurretan

- **Erref:** 101-263/033
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:32:48. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Argazkia: Bergaran elurretan, senarraren aita bisitan izandako batean.

20. Argazkiak: lagunekin baserrian eta alabak andereñoarekin

- **Erref:** 101-263/035
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:33:20. **Bukatu:** 00:34:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Argazkia: Lagunekin Osintxun zegoen baserri batean. Argazkia: alaben klasekideak eta andereño Karmele.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com